

# noaua

**Herrizartuk  
galdera zehazteko  
prozesua abiarazi du**

**Udal dirulaguntzak  
eskatzeko epea ireki da**

**Hilerri zaharra  
ixteko lehen urratsak  
ematen hasi da Udala**



**Igandean manifestazioa Donostian, GuraSOS-ek deituta**

**“Adostasunean  
dago konponbidea”**

# OSASUN GIDA 2017



Irati Ibargoien

FISIOTERAPIA ETA OSASUN ZENTROA

Pilates terapeutiko pertsonalizatua

- Errehabilitazioa
- Kirol fisioterapia
- Fisioterapia traumatologikoa
- Fisioterapia neurologikoa
- Terapia funtzionala
- Osteopatia

Puntapax kalea 68, behea ezk.  
20170 USURBIL

Zentro  
berria  
Usurbilen!



**USURBIL**  
**OPTIKA**

Bigarren lente pareta doan: lente progresiboetan,  
irakurtzeko lenteetan eta ikus-urruneko lenteetan

Zubiaurrenea, 10 • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

2. lente pareta doan

**2x1**

PROGRESIBOETAN  
IRAKURTZEKOETAN  
IKUS-URRUNEKOETAN



**Oinutsik**

podologia zentroa

943 11 09 54 zubiaurrenea 2, Usurbil



- Azterketa biomekanikoak • Plantilak
- Papilomak • Erreflexoterapia
- Kolagenozko infiltrazioa • Kiropodiak



Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua

Dermofarmazia

Produktu homeopatiakoak

Maisu formulak



Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

[www.iturraldebotika.com](http://www.iturraldebotika.com)



Lizarralde  
ORTOPEDIA

✓ OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA

✓ Produktu ortopedikoen alokairu zerbitzua  
(oheak, aulkak, garabiak...)

✓ Arreta pertsonal eta espezializatua

✚ Teknikari ortopeda kontsulta    👤 Aholkularitza    🧴 Produktu gama zabala

Kazkazuri 1 baxua, OIartzun - 943 543 585/ 688 678 583  
[www.lizarraldeortopedia.eus](http://www.lizarraldeortopedia.eus)

**LOGOPEDIA**

Haurrak / Nerabeak / Helduak  
TERAPIA MIOFUNZIONALA



- Arnasketa arazoak, disglosia, degluzioa
- Ahotsaren tratamenduak: disfemiak, disfonia funtzionala sinple eta konplexua...
- Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...

Aurreko hitzordua: 635 701 374

## Albistea iruditzen

# Kantu zaharra ez zen 'umezurtz' geratu



"Bederatzi laguneko talde bat osatu genuen eta bi orduz ibili ginen Santa Agedako kanta zaharrak eta koplak kantatzen".

Santa Agedako koplak zaharrak berri gabe geratu zirela idatzi genuen aurreko astean. Ez zela talderik osatzerik izan eta, horren berri emateko, iazko argazki batekin osatu genuen 'Klik batean!' atala. Ba ez ginen zuzen ibili. Irakurle ba-

ter argazki hauek igorri dizkigu. Santa Ageda bezperan kantari ibili zen koadri-la ageri da. Argazkiekin batera, ondoko testua ere jaso genuen: "Bederatzi laguneko talde bat osatu genuen eta bi orduz ibili ginen Santa Agedako kanta

zaharrak eta koplak kantatzen. 'Bizi Kalea' ospatzen ari zen aldi berean aritu ginen inguruetan, arratsaldeko 19:00etatik 21:00ak arte. Gurekin tarteka kantari aritu zenik ere izan genuen". Alegia, kanta zaharra ez zela 'umezurtz' geratu.

## Laburrean

### Ziortzan proiektu solidario bat lantzen hasi dira

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleekin batera, proiektu solidario bat lantzen doa Ziortza. Lehen saioa otsailaren 10ean egin zuten Ziortzako lolaketan. Hurrenak martxoaren 10ean eta apirilaren 7an egingo dituztela iragarri dute.

### Otsailaren 25ean, 1956koen afaria

1956an jaiotakoak otsailaren 25ean larunbata elkartuko dira Saizar jatetxean. Aurretik izena eman beharra dago, ordea. Telefono zenbaki honetara deitu behar duzue: 943 362 555 (Mari Karmen).

### Matrakak taldeak deituriko 'poteo militantea'

"Aizan! Datorren larunbatean, 18an, 19:30ean Dema plazan ikusiko gaitun baxoerditan dantzan! Denok eman behar dugu zerbait etxekoandreok dena eman ez dezagun". Honatx Matrakak Talde Feministak larunbaterako eginiko deialdia.

# noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // [elkartea@noaueus](mailto:elkartea@noaueus) // [www.noaueus](http://www.noaueus)

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

#### Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

#### Publizitatea:

Beatriz Alda,

[publizitatea@noaueus](mailto:publizitatea@noaueus)

#### Diseinu berria:

Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

[erredakzioa@noaueus](mailto:erredakzioa@noaueus):

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

#### Banaketa:

Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

#### Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herreria!



Garazi Lizaso Manterola

## Barrote arteko eskubideak zer?

**U**rtarrilaren erdialdera Sara Majarenas euskal preso politikoaren alaba labanaz sastatu zuen kartzelaratuaren bikotekideak. Banantze tramiteetan murgilduta zeuden. Haurra amarekin Picassenteko espetxean bizi zen eta aitak asteburuan berarekin kalean izateko baimena profitatu zuen eraso egiteko. Komisaldegian aurkeztu zen gizona umea hil zuelakoan, baina bizirik zegoen Izar –alaba–, oso larri.

Zorionez, Izar bizirik atarra da. Hala ere, jazotakoak arrasto fisiko nahiz psikologikoak utzi dizkio txikiari. Bere amonak idatzitako gutunean, amaren hutsunea dela okerrena dio, txikiari ahultasun gehien sortzen diona.

Espainiar estatuan, gatibu dagoen amak eskubidea du haurrak hiru urte bete arte kartzelan berarekin edukitzea. Gauzak horrela, orain arte ama-alabak hogeita lau orduz batera egon dira. Izarri aitak eraso egin dionean, aldiz, ama ez du alboan. Bi egunetik behin, ordubetez, eramaten dute Sara umea bisitatzera eta ondoren, alde egin behar. Txikiak ez du ulertzen

zer pasatzen den: egun osoa elkarrekin egotetik ia-ia hutsera pasatu dira. “Ama” dei egiten du, ama ez dator ordea. Imajina dezakegun bezala, agurrak ez dira batere samurrak.

Horrek guztiak haserrea sortu du alabarengan eta ama zigortzen du. Sarak berarekin egongo dela zin egin dio, baina ez dago. Haurrak ez du amaren argazkirik nahi. Senitartekoez amak asko maite duela esaten diote eta haurrak ezetz, ez baitator. Aitak soilik ez, amak ere huts egin diola sentitzen du. Nola azaldu Izarri gorrotoan oinarritzen den espetxe sistema hau dela bere amari bere ondoan egoten uzten ez diona?

Picassentetik berri gehiago etorri zaizkigu: urtarrilaren 19an, ireki zituen begiak Xuak. Xua Olatz eta Patxi herriko presoan alaba da –bide batez, zorianak bikote!–.

Gozotik adina gazitik izan du notiziak. Mari Karmen –Olatzen ama– Valentziara gerturatu zen biloba ezagutzera. Han gaixotu eta ospitaleratu zuten, egoera larrian. Oraindik ospitaleratuta jarraitzen du Zaintza Intentsiboko Unitatean. Dispersioaren erruz, Euskal Herrian egon beharrean, herritik

600 km-tara.

Olatzen izebak idatziriko eskutitzean, herritarroi eskerrak ematen zizkigun eta jaiotza ospakizunek Mari Karmen osatu arte itxaron beharko dutela zioen. Izan ere, Olatz, Xua eta Patxi –barrote artean– eta Mari Karmen –ospitalean– eta haren ahizpa daude herritik nahi baino urrunago.

Patxik ez du bere alaba eza gutzen oraindik. Ez du Xua ukitu edota muxukatu. Krudela da gero zure alaba zuk zeuk ere ez ezagutzea, ezta? Eskubidea izan arren, beste hainbat bezala, ukatua. Patxik eta Olatzek batera beharko lukete, baina ez daude. Etxetik gertuen dagoen espetxean beharko lukete eta ez Valentzia eta Alacanten.

Sara eta Izarren aferagatik Donostiako elkarretaratzean Eneko Goiarekin –Donostiako alkatea– izandako elkarrizketa kontatzen zuen Arantzak –Olatzen izebak– gutunean. Sarak kondanaren 3/4ak beteak dituela eta, legez, kalean beharko lukeela esan zion, etxetik urrun kartzelaratuta beharrean. Ea orain zerbait egingo zuten galdegin zion eta alkateak euren eskuetan ez dagoela erantzun. Aran-

tzak, berriz, giza eskubideak, konponbidea eta bakea exigitzen zituen U14ko manifestaziora joatea euren eskuetan zegoela eta ez zutela egin adierazi zion. Banantzeari utzi eta batzeko ordua zela eta gizatasuna guztiaren gainetik dagoela erantsi zion.

Horixe da azpimarratu nahi dudana. Badela garaia gizatasunagatik, eskubidea dutelako eta legeak hala diolako, mendekuzko espetxe politika anker honi amaiera jartzekoa. Astebururo senitarteko eta lagunak kilometro amaigabeak egiten dituzte, euren bizitzak arrisku etengabean jartzen dituzte. Guztion eskuetan dago dispersioari amaiera jartzea eta barrote arteko eskubideak bermatzea. Patxik Xua eta Olatzekin egon behar du, alaba ezagutu behar du eta, bide horretan, pausak eman behar ditugu, elkarrekin.

PD: Testu hau otsailaren 7an idatzitakoa da. Orduz geroztik Patxik Xua ezagutu ahal izan du eta Sarari alaba sendatu bitartean ospitalean egoteko baimena eman dio epaileak.

Maite zaituztegu!

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Maialen Unanue | **Garazi Lizaso Manterola** | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | Luis Aranalde

## Gutxieneko zerbitzuak Euskotrenen

**A**marako eta Arasoko lan-egoitzetako makinan lan uzte gehiago iragarri dituzte Zumaia-Donostia eta Lasarte-Oria-Hendaia lineetan. Ez egun osoz, ordu tarte zehatzotan baizik:

■ Otsailak 17 ostirala: 6:25-8:35/17:25-19:35.

■ Otsailak 21 asteartea, 23 osteguna: 6:55-9:05/17:55-20:05.

■ Otsailak 27 astelehena: 7:25-9:35/18:25-20:35.



Ostiral honetan lan uzteak ordu hauetan izango dira: **6:25-8:35-17:25-19:35**.

### Informazio gehiago:

euskotren.eus

902 543 210

@euskotrenEJGV (Twitter)

Langileen berri izateko:

Euskotren Amarako Langileak (Facebook)

@EuskotrenAmara (Twitter)

### EHBildu pozik da eskualdea garatzeko hitzarmenarekin

“Onura handiak ekarriko dizkie eskualdeko ekintzaileei, enpresei eta, oro har, herritarrei”, hala diote Buruntzaldeko EH Bilduko ordezkariak. Urrats berri honek jardun hau erraztu eta areagotu egingo duela dio koalizioak, eta etorkizunean garapen agentzia izateko lanean segiko dutela adierazi zuten astelehenean, Hernanin eskaini zuten prentsaurrekoan.

# Herri kontsultan egingo den galdera zehazteko prozesua martxan da

**E**rabakitze eskubidearen inguruan, han eta hemen galdeketa asko egingo dira udaberri partean. Batzuk martxoan izango dira, besteak maiatzean. Usurbilen finkatuta dago kontsultaren eguna: maiatzaren 7an egingo da. Galdera zehaztea falta da orain. Ardura hori hartu duen lantaldea hasi da lanean. Herritzartu taldetik aditzera eman digutenez, “hausnarketa eta partehartzea sustatuz zehaztu nahi da galdera”. Herritarrek emailaz edo whatsapp bitartez bidali ditzakete proposamenak.

Otsailaren 17ra bitartean, herritarrek euren proposamena bidali dezakete whatsapp bitartez (634 44 55 12) edo emailaz (usurbilgureeskudago@gmail.com). Gure Esku Dago Usurbilen-en Facebook eta Twitter kontuak ere baliatu daitezke proposamenak helarazteko.

**Otsaila amaieran, batzar irekia**  
Behin proposamenak jaso eta aztertu ondoren, Herritzartu-



“Galdera zehazteko ardura hartu duen lantaldea anitza da eta herritar orori irekita dago”, halaxe aitortu digu Herritzartu taldeak.

## HERRITZARTU

**“Hausnarketa eta partehartzea sustatuz zehaztu nahi da galdera”. Herritarrek emailaz edo whatsapp bitartez bidali ditzakete proposamenak**

ren “lantaldeak 2/3 galdera posible adosteko bidea hartuko du. Batzar informatibo irekia egingo da (otsailaren azken astean), ikusten diren aukera posibleen berri emateko eta eztabaidatzeko”.

## Galdera martxoaren 19an emango da aditzera

Martxoaren 1etik 12ra, herritarrek izango dute hitza: “iritzia eskatuko zaie, lantaldeak adostutako 2/3 galdera posibleen artean gustukoaren dutena adieraz dezaten”. Iritzia jasoko da whatsapp, email nahiz sare sozialen bitartez. Baina dena saretik izan ez dadin, mahaiak ere ipiniko dira horretarako propio.

Herritarrengandik jasotako iritzia aztertu ondoren, Talde Sustatzaileak behin betiko galdera zehaztuko du.

Herritzartuk aditzera eman duenez, “martxoaren 19an eza-gutzera emango da maiatzaren 7ko herri-galdeketa bozkatu beharko dugun galdera zein izango den”.

## Lan taldeetan parte hartzeko aukera

Herritzarturen baitan, lan-talde ezberdinak jarri dira martxan. “Lanean jarraitzen dute, eta herritar oro gonbidatua dago parte hartzera”, Herritzartu elkartetik aditzera eman digutenez.

- **Galdera adosteko taldea:** asteartea, 19:00etan Potxoenean.
- **Komunikazio taldea:** asteartea, 20:00etan Potxoenean.
- **Ekintzak antolatze taldea:** asteazkena, 18:30ean Potxoenean.
- **Finantziarioa:** asteazkena, 18:30ean Potxoenean.

## Larunbatean, Mus Txapelketa Aginagan

Eliza Zaharrean jokatu da, 16:00etan hasita. Izen-ematea ordu erdi lehenago irekiko da.

## Ika-Mika

# Borreroaren aurpegiak...

**A**spaldian zain ginen Xua, Olatz eta Patxiren alabaren jaiotzari ongi etorria emateko. Tamalez ordea, pozarren ospatu nahi genuen ekimena gazi-gozoa bilakatu zaigu Mari Karmenen (amona-ren) osasun egoera dela eta.

Sarritan atera gara plazara euskal preso politikoei eta senideei sakabanaketarekin aplikatzen zaien zigor bikoitza salatzerako. Gaur ere hori adierazi nahi dugu idatzi honen bitartez, Usurbilgo herritarren au-

rean: Mari Karmen, bere alaba eta biloba bisitatzerako joan eta bertako ospitale batean (Valentzian) ingresatu behar izan zuen larriki gaixotu zelako, Euskal Herriatik eta bere senide eta lagunengandik urrun, egoera honek sortarazten dituen eragozpen guztiei aurre egin beharrean. Berrito ere estatutaren biolentziak, bakerako eta konponbiderako urratsei muzin egin eta bere aurpegi zital eta mendekatzailea erakutsi digu presoen eta senideen es-

kubideen zapalkuntzan, garai-le eta garaituen errelatoa inposatu nahian.

Berriketan Usurbilen burututako KALERA, KALERA!! ekimenaren kriseiluaren argia Euskal Herri osora hedatu denean dei egiten diegu herriko eragile, instituzio eta herritar orori presoak kaleratzearen alde eta urteetako gatazka politikoa konponbidean indarrak batu eta elkarlanean urrats berriak eta konpromisoak burutzeko.

Azkenik, Xua, Olatz, Patxi eta Mari Karmeni une zaila bizitzen ari zireten honetan, samin guztien gaintik gure animu eta besarkada maitakorrenak helarazten dizkizuegu. Eta bereziki zuri Xua guk izan duguna baino Euskal Herri aske eta hobeago bat izan dezazun lanean jarraituko dugu. Borreroaren mila aurpegiak ez dezatela gure irribarra itzali.

Presoak kalera!!

# “Olatz, Patxi eta Xua lehenbailehen Euskal Herriratzea eskatzen dugu”

Olatz Lasagabaster, Patxi Uranga eta Xua jaio berria Euskal Herriratzea eskatu zuen Usurbilgo Udaleko udalbatzak, urtarrilaren 31n egin zuten osoko ohiko bilkuran, EHBilduk aurkeztu eta gehiengo osoz (EHBildu eta EAJren aldeko bozkekin, PSE abstenitu zen) onartu zuten mozioaren bidez.

“Usurbilgo Udalak irmoki salatzen du erditze hori gertatu deneko egoera eta baldintzak. Ez da onargarria preso dagoen euskal herritar bat bere herritik 600 kilometrotara erditzera behartzea, familiakoen eta lagunenez inolako babes eta gertutasunik gabe. Biolentzia hori mendeku goseak eragindakoa da, eta erabat tokiz kanpo dago. Hortaz, Olatz, Patxi eta Xua lehenbailehen Euskal Herriratzea eskatzen dugu. Era berean, gainontzeko euskal preso politikoak ere Euskal Herriratzea eskatzen dugu horrelako egoerarik berriz gerta ez dadin”, dio mozioak. Udala bere esku dagoen egiteko prest agertzen da, familiari lagundu eta “egoera zail honi ahalik eta ondoen erantzuteko”.

## Mari Karmen ere, urruntzearen biktima

Era berean ongietorria ematen dio mozioak Xua jaioberriari. Kezka adierazten du Mari Karmen Anzaren osasun egoeragatik, “lehenbailehen senda dadila opa dio” eta nabarmentzen dutenez, “Mari Karmen Anza



“Bizi dugun egoera politikoari dagokion humanismoa da eskatzen dugun gauza bakarra”, hori eskatzen zuten Xua, Patxi eta Olatzen Orioko lagunek Karkara aldizkarira igorri zuten gutunean.

## MOZIOAN JASOA

**Udala bere esku dagoena egiteko prest agertzen da, familiari lagundu eta “egoera zail honi ahalik eta ondoen erantzuteko”**

ere urruntze horren biktima dela. Alaba eta biloba bisitatza joan, eta etxetik urruntuta gaixo dago, bere ingurutik erabat apartatuta”. Valentziako ospitaleko ZIUn segitzen du Anzak.

Patxi Uranga artean, Alacanteko espetxean izan dute asteotan. Ezin izan du Xua bisitatu. Hilaren 8an aldatu zen egoera; Picassentera eraman zuten alaba ezagutu zezan.

Honez gain, Olatz Lasagabasterren espetxe berean da baita Sara Majarenas euskal preso ere. Sara eta Izar lehenbailehen baldintzapeko askatasunean

jartzea eskatzen du Usurbilgo Udalaren mozioak.

## Mozio alternatiboa

Bozketa aurretik, PSE-ko ordezkari Fermin Oruek mozio alternatiboa aurkeztu zuen. Udal taldeek testu hau aztertzeko osoko bilkura eten zuten une batez. Etenaldiaren ostean, EHBildu eta EAJko ordezkariak PSEren mozioa ez babestea erabaki zuten. Xabier Arregi alkatearen esanetan, EHBilduk aurkezturiko testuan “giza legedia aplikatzea eskatzen dugu”.

Aldiz, PSE-k aurkezturikoa “balorazio politikoaren gainean eraikitako mozioa da” zioen alkateak. ETari armagabetzea, gizarteratza bideraturiko espetxe-politika malguta eta eragile guztien artean adostua, presoekin zein epaitzeko zain daudenei egindako kaltea aitortzea eta lege penitentziarioa onartzea eskatzen zuten testu alternatibo

honek.

Aipatu moduan, EHBilduk eta EAJk ez zuten babestu PSEren mozioa. Fermin Oruek EHBilduren testua puntuka bozkatzera ere proposatu zuen. Udal gobernu taldetik ordea, mozioa bere osotasunean bozkatzeko beharra nabarmentzen zuten, bestela zentzua galtzen zuela zioten. Azkenean, EHBilduk aurkezturikoa onartu zen gehiengo osoz, EAJren babesarekin. PSEko ordezkaria abstenitu egin zen.

## “Sufrimendu hori doakoa da eta bidegabea”

Olatz Lasagabaster, Patxi Uranga, Xua eta haien senideak bizitzen ari diren egoera bidegabea salatu, babesa adierazi eta hirurak lehenbailehen euskal herriratzea eskatu zuten hainbat usurbildar eta oriotarrek, hilaren 10ean Orioko Salatxo aretoan egin zuten agerraldian. “Sufrimendu hori doakoa da eta bidegabea. Biolentzia hori ez da onargarria. Garai hauetan horrelako egoerak erabat tokiz kanpo daude. Hortaz Olatz, Patxi eta Xua lehenbailehen Euskal Herriratzea eskatzen dugu”, adierazi zuten.

Otsailaren 8an Alacantetik Picassentera eraman zuten Patxi, Xua ezagutzera. Orain ez dago argi noiz, baina Patxi berrira eramango dute Picassentetik. Eta honenbestez, berriz urrundu dute Olatz eta ezagutu berri duen Xua alabarengandik.

**Urantz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

693 059 392  
urantz@urantz.com USURBIL

**Patxi**  
Patxi Uranga  
Jaiotza

· bazkariak EGUNERO  
· afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

**ALDAMU**

KONPONKETAK

KALE NAQUSIA 10- atzekaldea  
943 372 795

**Iñaki Iturgintza**

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITZAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com  
600 024 825

# 'Txertatu merkatuan', gazteak lan mundura bideratzeko ekimena

Beterri-Buruntzako Udalek sustatzen duten ekimen honen bitartez, lan giroan murgiltzeko aukera eskaini nahi zaie langabezian daudenei edota ikasten ari ez diren 21-29 urte bitarteko gazteei.


Beterri-Buruntzako eskualdeko udalen ordezkari gisa, Andoaingo Udala izango da 'Txertatu merkatuan' programaren kudeaketaz arduratuko dena. Gizarte eta lan orientazio zein integrazio teknikak lantzeaz gain, lan bertikale-tako prestakuntza ikastaroa programatu du.

## Izen-ematea, zabalik

Urtarrilaren 31n hastekoa zen baina oraindik bada izena emateko epea. Prestakuntza programa honek ekainaren 9ra arte iraungo du. 12 plaza dauka aukeran, eta Beterri-Buruntzako udalerriko gazteek lehentasuna izango dute.

## Edukiak:

-Gizarte eta lan orientazio zein



Ekimen honen bitartez, Beterri-Buruntzako udalek lan bertikaletarako prestakuntza ikastaroa antolatu dute.

## LAN BERTIKALAK

**"Lan orientazio eta integrazio teknikak lantzeaz gain, lan bertikaletarako prestakuntza ikastaroa programatu dute 21-29 urteko gazteentzat"**

integrazioarako teknikak.

-Especialista soka bidezko sarbide teknikan (IRATA nazioarteko ziurtagiria lortzeko aukerarekin).

-Praktikak burutzeko behar diren beste hainbat prestakun-

tza.

-Prestakuntza saio hauez gain, 180 orduko praktikak burutu beharko dira.

## Izen-ematea

Andoainen egin behar da, Urigain Etxean. La Salle Etorbidea, 6. 20140 Andoain.

Ordutegia: 9:00tatik 15:00etara. Interesatuak edo informazio gehiago nahi dutenek emailez edo telefonoz jar daitezke kontaktuan hurrengo telefono edo posta elektronikoa:

943 30 42 21

txertatumerkatuan@andoain.eus

# Hazilan proiektua, gazte kualifikatuak laneratzeko proiektua

Langabezia-egoeran dauden 20 urtetik 35 urtera bitarteko gazte kualifikatuak laneratzeko proiektua da Hazilan. Programa honetan parte hartu nahi duten enpresek edo gazteek web orrialde honetan lor dezakete informazio guztia: [www.hazilan.eus](http://www.hazilan.eus).

Edota Andoaingo Udalean: Urigain etxea. La Salle etorbidea 6, 20140 Andoain.

943 304 221.

[hazilan@andoain.eus](mailto:hazilan@andoain.eus)

Gazte enplegua sustatzeko, Garapen Agentzien Euskal Elkarteak 6.000.000 euroko ekarpena egin du. 2014-2020 aldirako Euskadiko Programa Operatiboan kokatzen da proiektua, eta Europako Gizarte Funtsak finantzatzen du %50ean, eskualde-garapeneko 20 agentzien parte-hartzearekin.



20 urtetik 35 urtera bitarteko gazteei zuzendua dago ekimen hau.

## Izen-ematea

Hazilan programan izena emateko epea martxoaren 15ean amaituko da.

## Biziberritu, Udarregiko gurasoen parte hartzea hobetzeko ekimena

Parte hartzea hobetzeko asmoz, Udarregi ikastolako guraso batzuk ekimen bat abiatu dute. Horri buruzko informazio osatua web orrialde honetan topatuko duzue:

[biziberritu.wixsite.com/hasiera](http://biziberritu.wixsite.com/hasiera)

Urtarrilaren amaieran eta otsaileko lehenengo astetan ikasmila bakoitzeko gelabileretan honen berri eman zaie gurasoei. Ekimen honen bidez, gurasoen parte hartzea ahalbidetzeko proposamen bat luzatu dute. "Gure asmoa 2016-17 ikasturte honetan prozedura hau abiatzea da, baina horretarako gurasoen inplikazioa behar da. Gurasoek bultzatuta, gurasoentzako".

Web orrialde honetan, besteak beste, maiatzean egingo den ikastolako Batzar Nagusian erabakitzeko gaiak proposatzeko aukera dago. Proposamen horiek egiteko epeak otsailaren 25a arte iraungo du.

## Aginagako Guraso Elkarteak lan poltsa osatu nahi du

Aginagako Guraso Elkarteak begirale lan-poltsa osatu nahi du. "Aginagan antolatzen diren Gabonetako, Aste Santuetako eta udako txokoetarako eta baita goizetako zaintza zerbitzurako ere. Bidali zuen kurrikulumak [aginata@eskolatxikiak.org](mailto:aginata@eskolatxikiak.org) emailera otsailaren 28a baino lehen".



Otsailaren 28a baino lehen bidali behar dira kurrikulumak.

# Mahaspildegiko aparkalekua handitzeko lanak aurrera doaz

Lanak urte amaieran hasi zituzten. Lehenbiziko fasearen baitan, parkinerako sarrera egokitu, goikaldeko espaloia berritu, aparkalekua bera berrantolatu, argiteria eta ubideak berritu zituzten. Lehenengoa amaitu eta berehala ekingo zaion bigarren fase bat izango dute lanok.

## 13.830,05 euroko aurrekontua

Fase berri honen "helburu nagusia aparkaleku kopurua handitzea izango da. Mendebaldean ezarritako aparkaleku lerro zuzena aldatu eta bateriako lerro bat jarriko da. Fase honen exekuzioa sinpleagoa izango da aurrenekoa baino, instalazio eta ekipamendu guztiak aurretik prestatuak izango baitira", iragarri du Usurbilgo Udalak. Lasuen Construccionesek bideratuko dituen lanok, 13.830,05



Lanak martxan dira. Ez dute baztertzen etorkizunean gunea handitzea.

euroko aurrekontua dute.

## 35 aparkaleku guztira

Bi faseok amaituta, "Mahaspildegiko gunea 34 aparkaleku eta mugikortasun urriko aparkaleku bat izango ditu" iragarri dute Udaletik. Halere ez

dute baztertzen, etorkizunean gunea handitzea. "Fase hau burutzean, aparkaleku guneari ez zaio espaloia batekin emango amaiera. Hirugarren faseari begira, zabalpen bat egiteko asmoa egon daitekeelako", berri eman dute.

## Lapurreta saiakera Laukoten

Otsailaren 8tik 9rako tartean, atea behartu zieten, baina ez zuten ezer eraman. Iazko martxoan sartu zirenean triskantza handiagoa egin zieten, beira apurru, atea behartu eta barruan zuten diru apurra eraman baitzuten. Oraingoan aldiz ez zuten dirurik utzia kafe-tegian. Azken aldian lapurreta gehiago izan dira; Zendoia eta Txapeldun tabernetan esaterako.



Otsailaren 8tik 9rako tartean behartu zuten Laukoteko sarbidea.

## Sortzaileen mugikortasunerako bigarren deialdia

Euroeskualdean sortzaileen mugikortasunerako bigarren deialdira hautagaitzak aurkezteko epea zabaldu da.

Mugikortasun proiektu honen bidez, parte hartzaileek 2/3 egunetan topaguneak konpartitu, hitz egin, sareak eraiki, ideiak konektatu, sinergiak bilatu, eta ideia berrietan kooperatu ahaliko dute. Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako mugikortasun programa honen gure kasuan 24 gazte sortzaileen mugikortasuna ahalbidetuko du. Informazio gehiagorako: 943 30 42 21.

## Urtarrilean koxka bat gora egin zuen langabeziak

Urte garai honetan ohikoan bihurtu den gorakada izan da Usurbilgo langabetu kopuruan. Estatuko Enplegu Zerbitzuak kaleraturiko azken datuen arabera, 264 langabetu zenbatu zituzten urtarrilean udalerrri honetan. Abenduan baino 8 langabetu gehiago hain zuzen. Igoera bereziki emakumezkoen artean eman da. Urte amaieran 137 langabetu emakumezko bazeuden, urtarrilean 146raino igo da kopurua.

Langabetuen kopuruak gorantz egin arren, kontratatu kopurua ere gehitu da, nabarmen gainera. Abenduan 250 kontratu erregistratu ziren Usurbilen, urtarrilean 449. Ia denak (424) ohi bezala, aldi baterako.

# ELORZA

OBRAK ETA  
ERREFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

# USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL



# GuraSOSen igandeko manifestazioak gizarte ordezkariak zabalaren babesa jaso du

**K**iolariak, kazetariak, musikariak, aktoreak, bertsolariak, sendagileak, sagardotegietako langileak, sindikatuak, eragile sozialak, hezkuntza munduan lanean dabiltzanak... Gipuzkoako gizarte ordezkariak zabalaren babesa jaso du GuraSOSek, igande honetarako Donostian deitu duten manifestazioak.

“Elkarrekin gehiago gara”, aldarrikatu zuten haietako askok, hilaren 9an Donostiako Haizeen Orrazian egin zuten agerraldia. “Hain adierazgarri den Haizearen Orrazitik, itsasoak eta haizeak edertasun nahiz indar guztia agertzen duten leku honetan dei egiten diogu gizarteari. Bete ditzagun Donostiako kaleak datorren otsailaren 19an. Ur tanten antzera elkar gaitzen, bat egin dezatela gure eskuek eta osatu dezagun itsaso bare bat”, adierazi zuten.

## Zubiak eraiki

Iganderako deitu duten mobilizazioa, ez erraustegiaren aurkakoa ezta foru gobernua- ren aurkakoa ez dela izango nabarmendu dute. GuraSOSek landu eta aurkeztua duen bide-orria babestean, hondakinen kudeaketaren gaiari guztion artean irtenbide adostu bat ematearen aldekoa baizik. Horregatik, konponbide adostu batera heltzeko, “adostasun batera eramango gaituen gizarte eztabaida bat beharrezkoa dela uste dugu. Gehiengo lortuta ere inposizioak baliorik ez dutelako. Etiketarik gabeko gizartearen lekua aldarrikatu nahi dugu. Demokrazia aberastu nahi dugu zuzeneko parte hartzearen bidez. Zubiak eraiki



Igande honetan, Donostiako Artzai Onaren Katedraletik abiatuko da manifestazioa eguerdiko 12:00etan.

## GURASOS

**“Bete ditzagun Donostiako kaleak datorren otsailaren 19an. Ur tanten antzera elkar gaitzen, bat egin dezatela gure eskuek eta osatu dezagun itsaso bare bat”**

nahi ditugu eta ez trintxerak. Harro sentiaraziko gaituen Gipuzkoa hobe bat nahi dugu. Ezinezkoa nahi dugula esateak ez du balio. Beste zenbait lekutan lortzen ari dira eta Gipuzkoa elkarrekin gehiago izango da”.

## Eztabaida gardenaren eta parte hartzearen alde

Beste behin, gizartean gai honi buruzko informazio eta eztabaida gardenaren eta herritarren

parte hartzea sustatzea ezinbesteko direla defendatu du GuraSOSek.

## Foru Aldundiari: “Aurrez aurre hitz egin dezagun”

Foru Aldundiko Ahaldu Nagusi Markel Olanori biltzeko deia egin zioten, “aurrez aurre hitz egin dezagun. Eta utz dezagula alde batera komunikabideen bidez egindako interpelazioa. Uztailaren 6az geroztik ari gara bilera bat egin nahian eta gutaz zein gure proposamenetaz hitz egin baino nahiago ditugu partekatzea, egokiago litzatekeelako. Zuen irudipenak entzun nahi ditugu eta honekin batera elkarriketa bilatu eta baita gerturatu aukerak ere. Irekitzazue Foru Aldundiko ateak, ez ezazue erakundeekin gotorlekurik egin. Ez gara herritarrok zuen konpententzia, zuen osagarri baizik”.

## Igande honetan manifestazioa, Donostia erdigunean

■ Eguna: otsailak 19, igandea.

■ Ordua: 12:00.

■ Ibilbidea: Donostiako Artzai Onaren Katedrala, San Martin kalea, Foru pasealekua, República Argentina kalea, Bulebarra.

■ Amaieran: “guztioek eskuak elkarri eman eta gora igoko ditugu, gizarte batasuna adierazteko asmoz”.

■ Aldarria: “Elkarrekin gehiago gara. Adostasuna, besterik ez!”.

■ Antolatzailea: GuraSOS.



“Elkarrekin gehiago gara. Adostasuna, besterik ez” lemak zabalduko du igandeko manifestazioa.

# Urrun daudenekiko elkartasun mural berria

Errekatxiki eta Zubiaurrenea kaleek bat egiten duten puntuan, errotonda parean dagoen etxe azpiko horma nola itxuraldatzen doan ikusteko moduan gara egunotan. Azken aldian horma zuritua zegoen, baina lehenago, oroituko duzue, euskal presoek euskal herriratzeari eskatzeko aldarria biltzen zuen horma irudi bat zegoen. Denborarekin hondatzen joan zen. Gutxi barru, aldarri bera islatuko du berriz, Errekatxiki etxe azpiak. Horretarako lanean dabilta egunotan, Ibai Etxarri eta Antton Ugarte.

Muralak landu eta diseinu grafikoaren eremuan aritzen den Ugarrri taldea sortu zuten bi lagun donostiarrok. Momentuz ez dira bizi lanotaz, baina "ia proiektuak ateratzen doazen pixkanaka", adierazi diote aldizkari honi.

## Enkargu lana

Udalerrri honetan dabilta asteotan, Usurbilen Nahi Ditugu bilgunearen eskariz. "Lehen zegoen murala zaharkitua eta hondatu samar zegoen. Berrietzeko asmoarekin kontaktatu ziguten Usurbildik", adierazi dio NOAUA!ri Anttonek.

## Gertuko errealitatea

Senide bat sorterritik urrun izatea, gertutik bizi duten errealitatea da, Etxarrik adierazi duenez. "Lehengusu bat preso dut. Kartzelan bere komikiak sortu ditu. Keinua egin nahi izan diogu bere sortze lanei, bere komikien ilustrazio berdinak dira hauek", adierazi digu Etxarrik.

Txanponak botatzeko makina bat marrazten ari direla ikusiko duzue. Bertatik, noiz edo noiz panpinen bat ateratzen duen makina bat da. Espetxe barruan preso segitzen



Muralak landu eta diseinu grafikoaren eremuan aritzen da Ugarrri taldea.

## UGARRI TALDEA

**Irudiok estilo propioz ari dira lantzen. "Askok espraia erabiltzen dute. Guri lerro finkoagoa, definituagoa izatea gustatzen zaigu"**

duutenak, noizbehinka aske gertatzen direnak, edota kanpoan zain dituzten senide eta la-

gunak ongi baino islatu nahi dituzte panpin makinaren metafora baliatuz. "Gertutasun hori. Familian presoekiko duten maitasun hori guztia islatu nahi dugu", adierazi digu Etxarrik. Baina beste ikuspuntu bat eman nahi diote, "ez hain zuzena, metaforikoagoa".

## Emaitza, laster ikusgai

Irudiok estilo propioz ari dira lantzen. "Askok espraia erabil-

tzen dute. Guri lerro finkoagoa, definituagoa izatea gustatzen zaigu", adierazi dute. Laster ikusiko dugu emaitza. Eguraldiaren baitan egongo da horma irudia lehenago edo beranduago prest.

## 'Ugarrri', sarean:

Bikote honen lan gehiago ikusteko bide hauek dituzue: Facebook: Ugarrri  
instagram.com/ugarrriart

## "Aurreko murala oso izorratuta zegoen"

Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak sustatu du ekimen hau. "Aspaldiko asmoa da aurrekoa oso izorratuta baitzegoen. Hura Karlos Zabala eta Amaia Kasasolak egin zuten haurrekin auzolanean", oitarazi dute. Eraikineko bizilagunen adostasunarekin ari dira berriren horma irudia. "Halere, desiratzen gaude horrelako mural erreibindikatioak egiteko premiarik ez izateko! Baina bitartean, ez gaituzte isilduko eta presoek eta euren



Antton Ugarte eta Ibai Etxarri ari dira murala osatzen.

senideen eskubideak aldarrikatzen segiko dugu", adierazi

dute Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik.

# Aterkiak, Hurbilagoko saltokietako bezeroentzat

**E**skuetan ondoko irudiko euritako bat eskuartean duenari segituan antzemango diozu nondik datorren; Hurbilago Elkarteko establezimenduren batean erosketak egitetik. Usurbilgo ostalari eta merkatarien elkarteak bezeroen eskura jarri dituen opari berriak dira aterkiak.

Euria egin, eta Hurbilagoko establezimenduren batera zoaztenean, bertan izango dituzue eskuragarri. Doan hartu, erabili eta berriro itzultzeko.

## Aterkia, babes

“Bezeroari zerbitzu eta tratua on bat eskaini nahian, Usurbil bertako denda eta establezimendu txikiek abian jarriko duten ekimen honek, oinarrian badu esanahi bat ere; aterkia, euritik babesteko erabiltzen



Doan hartu, erabili eta berriro itzultzeko aterkiak ipini ditu Hurbilagok bere bezero guztientzat. Argazkia: Ivan Perez.

dugun tresna izanik, herri bertako dendek bezeroari eskaintzen dioten gertutasuna eta ba-

besa adierazi nahi dira ekimen honekin”, azpimarratu dute Hurbilago Elkartetik. Ondoko

irudian dituzue Hurbilagoko hainbat ostalari eta dendari, aterkiak eskutan dituztela.

## Gipuzkoa 4.0 Fabrikazio Aurreratuko Sarea

Laugarren industria-iraultza lurraldeko enpresa guztietara iristea.

Hori etorkizuna da.

ORAININDUSTRIA4.0  
Laugarren industria-iraultzarako prest

ORAIN EKONOMIA

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Departamentu Berria  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA



**Klik! batean**

## Eta badoa...

Aurkariaren atearen aurrean, bizia azkarra eta abila izan behar da. Baloia eskuratu, tiraketa egiteko tokia hartu, besoa luzatu eta salto! Dena instant batean. Aurkariari aurre hartzea ere, funtsezkoa da. Usurbil KEko jokalaria hori dena egin du. Atezaina du orain oztopo bakarra. Eta badoa...

Argazkia: Ion Markel



# Usurbilgo, Aginagako eta Zubietako gazteek bilera irekia antolatu dute ostiral honetarako

Iazko azaroan, Usurbilgo Ernaik herriko gazte eragileekin batera osatutako diagnostikoa aurkeztu zuen. Bertan azaldu ziren kezka eta hutsune nagusiei aurre egiteko asmoz, lanean jarri dira hainbat gazte. Bilera ireki bat antolatu dute ostiral honetarako. Argazkiak dioen bezala, Potxoenean batuko dira arratsaldeko 17:00etan.

## “Baditugu alternatibak sortzeko baldintzak”

“Hamaika dira aurrera eraman daitezkeen proiektuak, eta herrian ditugun gabeziei aurre egiteko, Usurbilgo gazteok proiektu horiek definitzen hastera goaz otsailaren 17an, 17:00etan, Potxoenean egingo dugun bilera irekian”, halaxe zioten aurreko asteko NOAUA!n argitara eman zuten idatzian.



“Bertaratzeko gonbita luzatzen dizugu, Usurbilen ere gazteok baditugulako kezkak eta ezintasunak, ametsak eta beldurrak. Baditugu beraz, Alternatibak sortzeko baldintzak”.

## Korrika Batzordea, martxan

20. Korrika badatorren seinale argia. Korrika Batzordea lanean hasia da. Hilaren 9an bildu zen lehen aldiz Etumeta AEK euskaltegian, apirilaren 4an helduko den euskararen aldeko lasterketa girotzen hasteko. Gogoan izan, gerturatzen ari den 20. Korrika laguntzeko bide ezberdinak daude:

- Materiala salgai dute Etumeta AEK Euskaltegian.
- Korrika Laguntzaile kanpaina: 12 euroren truke, pina, hainbat saltokietan beharpenak eskaintzen dituen txartela eta gida eskura daitezke.
- 20. Korrikako ibilbideko kilometroak erosteko aukera dago.



Aurreko astean batu zen Korrika Batzordea lehen aldiz. Dagoeneko zabalik da kilometroa erosteko aukera, edota Korrika Laguntzaile egiteko kanpaina.

- Korrika Batzordean parte hartzeko aukera dute herritar nahiz eragileek. Informazio gehiago euskaltegian: Kale Nagusia, 43 607 609 379. usurbil@aek.eus aek.eus

## Bihurri ludotekako bazkidezen ordainketa

Otsailaren 28ra arte dago epea. Bazkide berriek 30 euro pagatu behar dituzte. Jada bazkide direnek aldiz 10 euro, ondoko kontu zenbaki honetan: Kutxabank ES76-2095-5069-06-1063903578

“Zalantzak argitzeko edo proposamenak egiteko, ludotekako tabloira jo dezakezue eta iradokizunak bertan egin”, ludotekatik aditzera eman dutenez. Emaila hau da: bihuririludoteka@gmail.com

Beste ohar bat ere luzatu dute Bihurri ludotekatik. Jada erabiltzeari utzi dioten gurasoei zuzendua: “Ludoteka utzi egingo duzuenok, mesedez, itzuli giltza”.

# Inauteriotan dantza, Dj Kankharrekin

**A**lberto Pikabea aginagarrak, Dj Kankharrek girotuko digu musikaz, Inauteri Festako gau parte frontoian. Ez da berria kontutotan. Musika jartzen aritu izan da lehendik ere zenbait jaietan, nahiz musika zaletu gisa definitzen duen bere burua. Etxean, Aginagako San Praixkuetan hasi zen zaletasuna aurrean zuen publikoarekin partekatzen.

Ez zen izan ordea ageriko emanaldia, pentsa, parranda zaletuak dj-a non zebilen ere galdezka aritu omen ziren. “San Praixkuetan Eliza Zaharreko txosnan neroni arduratzten nintzen musika jartzeaz. Urte batean lehengusuak komentatu zidan, musika jartzen ibiltzen nintzenez, egitarauan dj-a egongo zela iragarriko zutela. Dj-en booma bizi izan zen garaia zen. Jaietan edaria zerbitzatzten nebilan beti bezala, eta bitartean “play”ari ematen nion. Jendea, Dja noiz hasiko zen galdezka”, oroitzen du Pikabeak.

Gerora Atxegaldeko jaietan, txosnetan edota Usurbilgo Gaztetxeak antolaturiko kontzertu gau baten amaieran aritu da musika aukeratu eta jartzen. “Beti esan izan dut dj hitza handiegia geratzen zaidala”, azpimarratzen du. Bere burua musika zaletutzat du. Jendearen musika zaletasunetan erreparatzea gustatzen zaio eta “jendea musikarekin identifikatzea”.

## Klasikoen zale

Musika entzule fina dugu aginagarra. Ez du bolo-bolo dabilen kantu hori entzun nahi izaten. Nahiago du abesti sortu berriari bere ibilbidea egiten uztea, “klasikoan” bihurtzean



Otsailaren 25eko Inauteri Jaian arituko da Dj lanetan. Bezperan, Udarregi ikastolako ikasleak izango dira mozorrotuko direnak.

## DJ KANKHAR

**Otsailaren 25ean frontoian, musikaz girotuko du mozorro jaia. “Neure 150 CD eramango ditut, zaku handi batean, altzaritxo batean”**

ezagutzea. Eta hortxe eman digu, datorren Inauteri Festan eskainiko duen emanaldiaren inguruko lehen pista. Otsailaren 25ean frontoian musikaz girotuko digu mozorro jaia. “Neure 150 cd eramango ditut, zaku handi batean, altzaritxo batean”, aurreratu du.

Denetarik omen du bere musika erreperitorioan. “Hasi 60. hamarkadako soul musika amerikarretik, euskal rock erradikala deiturikoa, garai bateko triki taldeak (Maixa ta Ixiar..). Adinean aurrera joan ahala, musika erosterakoan nostalgik asko eragin dit. Bakarlarri asko entzuten ditut egun, folk countrya...”, adierazi dio aginagarrak NOAA!ri.

## Euskal musika nagusi

Etxean duen musika bilduma horretatik hautatutako musika eskainiko digu hilaren

25ean, 19:00etatik aurrera frontoian. Bitan zatituko du saioa. Afalurretik eskainiko du lehen emanaldia; bigarrena, 23:00etatik aurrera. Ez luke topikoetan jausi nahi. “Berbena, arin-arina, eta fandangoa jarri beharko dut ia jendea jendea animatzen den dantzara. Afalostean pentsatu nahi dut patxangeoko gogoz egongo dela jendea”, dio. Musika menu horretan euskal musikak berebiziko tarte izango du, gaudlean ordea, inauteri festa giro betean gaudela jakinik, Boney M edota Bee Gees mitikoeke ere dantzan jarriko gaituzte.

## Festa giroan

Erronka nagusia, Usurbilen hainbat ekitaldirekin gertatu ohi den bezala, oholtzan den artistaren eta aurrean duen publikoaren arteko betiko distantzia ahal bezain beste laburtzea litzateke, eta “ia jendearekin asmatzen dudán”. Gerturatu beraz frontoian aurreraino eta gozatu Albertok edo Dj Kankharrek girotuko digun Inauteri Festako gauaz. “Usurbil ez nuen herri inauterizaleztat jotzen baina antza bada. Ia festa giroa pizten gure hondar aletxoak jartzen dugun”, adierazi dio NOAA!ri.

## Otsailak 24 ostirala Mozorro festa eskoletan

■ 10:30 Udarregi Ikastolako kalejira.

■ 11:15 “Zaborra ere gurekin dantzan” ikuskizuna Oiardo Kiroldegian. Oharra: Oiardon izango den emanaldirako sarrera bana emango zaio ikasleen familia bakoitzari. Kiroldegiko ikuskizunaren aurretik, urtero moduan, “Martxa” dantzatzuz Kaxko inguruetan barrena desfilatuko dute LH-ko ikasleek.

■ 15:00 Aginagako Eskola Txikiko emanaldia Aginagako frontoian. “Euskal Mitologia” ardatz duten euskal dantzak eskainiko dizkiete gurasoei.

■ 15:30ak aldera, Inauteri Festa eta kalejira Zubietako Eskolan.

■ 19:30-20:30 Orbeli Dantza Taldekoen kalejira Oiardo Kiroldegitik. Amaiera ekitaldia, 20:30ean Mikel Laboa plazan.

## Otsailak 25 larunbata Inauteri Festa Kaxkoan

■ 12:00-12:30 Burrunbazale txaranga frontoian.

■ 12:30 Kantu Taldekoen jira abiatzeko 3 kantu abestuko dituzte Burrunbazale txarangaekin Mikel Laboa plazan.

■ Ondoren, kantu-jira kalez kale eta Burrunbazale txarangaekin kalejira. Bakoitzak bere ibilbidea osatuko du.

■ 16:00 Karaoke festa Gaztelekuan. Mozorrotuta etorri!

■ 17:00 Lauburu, Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsako erraldoi txiki, handi eta buruhandien kalejira dultzaineroekin, udaletxetik abiatuta.

■ 17:00 Burrunbazale txaranga frontoitik abiatuta.

■ 19:00-21:00/23:00-01:30 Dj Kankhar frontoian.

# Hilerrri zaharra hustutzeko prozesua hastera doa

Familiak beraien senideen gorputz-hondarrak berreskuratzeko hiru hilabeteko epea izango dute. Berreskuratzen ez direnak, hilerrri berrian sortuko den 'Errautsen Parkean' utziko dira modu anonimo batean.

## Errautsen Parkea sortuko dute hilerrri berrian

Hilerrri berria handitzera doa Udala. Egungo gune berdearen ondoan, espazio berri bat sortuko da, Errautsen Parkea izenpean. Hilerrri zaharreko zein etorkizuneko herritarrenak modu anonimoz uztea ahalbidetuko da bertan.

## Hileta zibilak era irekian egiteko aukera izango da

Espazio berri horrek hileta zibilak era irekian egiteko aukera eskainiko du. Orotara, handitze obrek 120.000 euroko aurrekontua izango dute eta aurten ber-



Hilerrri zaharra azaroan itxiko da behin betiko. Familiak hilerrri zaharretik berreskuratzen ez dituzten gorpuzkiak erraustu egingo dira. Ondoren, hilerrri berriko Errautsen Parkean eramango dituzte.

## UDALAREN JAKINARAZPENA

**“Hilerrri zaharreko gorpuzkiak berreskuratzeko 3 hilabeteko epea izango da. Berreskuratzen ez direnak hilerrri berriko Errautsen Parkean utziko dira, modu anonimoz”**

tan amaituta izango dira.

Hilerrri berriaren handitzeak zerikusi zuzena du hilerrri zaharren itxiera prozesuarekin. Familiartekoez eskatzen ez dituzten gorpuzkiak hilerrri berriera eramango dituztelako, hain zuzen. Udalaren gain geldituko dira eta erraustu ondoren hilerrri berriko Errautsen Parkean utziko dira.

## Hilerrri zaharra azaroan itxiko da

Azken hamabost urteotan ez da lurperatzerik egin kaxkoan bertan den hilerrri zaharrean. Hilerrri berrian egiten dira orain ehorzketak. Gauzak horrela, hilerrri zaharra azaroaren 30ean itxiko du Udalak. Hilerrri zaharrean dauden gorpuzkiak bertatik atera eta hilerrri berriera eramango dira.

## Informazio gehiago, Udaletxean


Herritarrek, familiartekoen gorputz-hondarrak berreskuratu eta beraien kabuz kudeatu nahi dituzten kasuetan, eskaerak egin ahal izango dituzte hiru hilabetetako epean. Gainerakoak, aipatu bezala, Udalaren gain geldituko dira.

Udaleko zerga-bilketako leihatillean izango da zuzeneko informazioa jasotzeko aukera, astelehenetik ostiralera, 13:00etatik 14:00etara. Izen ematea berriz, udal erregistroan egin beharko dute, horretarako eskuragarri izango den inprimakiaren bitartez.

# Hilerrri berria handitu egingo du Udalak eta Errautsen Parkea eraikiko da bertan



Hilerrri berria handitzeko 120.000 euroko aurrekontua izango du Udalak. Lanak aurten hasi eta aurten bertan amaitu nahi dituzte. Egungo gune berdearen ondoan, Errautsen Parkea



izeneko gunea zabalduko dute. Hileta zibilak era irekian egiteko aukera izango da bertan. Maketa hauetan oinarrituko da eraikuntza berria.





Anjel Lertxundi

## Tapia edo pintore ondratuaren leihoak

**E**dozein alorretako eskal ahalegin artistikoak gutxietsi nahi direnean, hor agertzen zaigu memoria-ren ganbaratik, klixe gisa eta baita ezpata bezala ere, Marcelino Menéndez Pelayok asmatutako “la honrada poesía vascongada” esaldi ezagun hura Samaniegoren eta Truebarene poesia gutxiesteko: Ayala kantzilerraren poesia goratu nahi zuen. Gaztelaniatzko poesiaz soilik ari zen: ez euskarazko poesiak ez euskarak zuten tokirik haren kasketan eta munduan.

Klixekak ondo finkatu ditu erroak: euskaldunok pinturan eta musikan, poesian edo dantzan egiten dugunak oso bakantetan gailentzen du, nonbait, ondratu maila. Gure artea apala dela, alegia. Gutxieneko galga lortzen duena akaso, baina anbizioarik gabea. Txokotik zabalera egiten ez dakien arte bat. Menéndez Pelayoren garaian gaur baino sarriago erabiltzen ziren bi hitz kontrajarri baliatuz, kultura probintzianoa da gurea eta ez kosmopolita. Metropolia zen garai hartan arnasa sakon hartuta esaten beste hitz bat, eta metropoliaren aireak usaindu behar dira, nonbait, Santanderreko kritikari eta historialari ospetsuaren bedeinkapena lortzeko.

Ondratu hitzaren erabilera gaitzesleaz aritu naiz orain arte. Baina ondratu adjektiboak ba al du ba tokirik arteaz jarduterakoan? Hitzak karga morala du, zilegi al da ondradutasunaz mintzatzea arteaz ari garenean? Ondradutasunaz zer ulertzen den. Kulturaren alorrean ondratu izatea da leiala izatea buru-



“Alejandro Tapiaren hiletatik irten ginenean, eguzkia sartuta zegoen, baina Oria inguruko paisaia ez zegoen ez isilik, ez argirik gabe”.  
Margoaren argazkia, [www.euskonews.com](http://www.euskonews.com) web orritik hartua.

### ANJEL LERTXUNDI

**“Gabon egunez hil zen,  
bizi izan zen bezain apal  
esan zien agur bere obran  
behin eta berriro agertzen  
den bere munduari,  
Oria ibaiaren inguruko  
naturari, bere sustraiei”**

tu nahi den lanarekin, ondratu izatea da koherentzia gordetzea artistaren eta obraren arteko lehian. Ondradu izatea da, halaber, kanpoko aireak norberaren helburu estetikoetan integratzea, eta bada baita ere tentuz ibiltzea kanpoko aireekin baldin moda hutsa badira, baldin kaltegarriak bazaizkio artistaren jardun pertsonalari. Beraz, ondradu izatea kategoria moral bat da, egia, baina esaten ez dugu ba etika eta estetika ez direla arte izeneko txanpon beraren aurkia eta ifrentzua besterik?

Orain arteko ideien eta Alejandro Tapiá pintorearekin izandako harremanen hainbat oroitzapenen zurrumbiloa ibili

zitzaidan nire baitako joan-etorrietan hileta elizkizunean. Gabon egunez hil zen, bizi izan zen bezain apal esan zien agur bere obran behin eta berriro agertzen den bere munduari, Oria ibaiaren inguruko naturari, bere sustraiei, Oteizaren testuetatik teorizatutako erakarmen telurikoari, baina Oteizak ez bezala –seguru asko, hark baino hurbil barneagotik– sentitutako, usaindutako, eskuekin laztandutako naturari.

Gazte garaian probatutako pop jardun interesgarri batzuk salbu, natura pintatu zuen, gehienetan jaiotetxeko muinotik ikusten zuen Oria ibaiko meandroen inguruko paisaia. Tapiak esana du kuadro bat pintatzen zuenean leiho berri bat zabalitzen zuela inguruan zuen paisaiari begiratzeko. Leiho bakoitza, begirada berri bat artearen egoitzan. Tapiá baino astebate geroago John Berger, Tapiáren adin bertsoko idazle eta pintorea, hil zen laurogeita hamar urterekin. Begiradari buruzko hausnarketa eder asko utzi dizkigu. Bestek beste, Bergerrek esan zigun artistarentzat

pintatzea deskubritzea dela. Kuadro bateko “linea bat, kolore-zona bat ez da inportantea nik ikusi dudana erregratzen duelako, gehiago ikustera eramango nauena-rengatik baizik”. Tapiá bezala, Bergerrek errespetu handia zion landako munduari, eutsi egin nahi zion mundu horrek bere baitan duen jakiturari: naturari begiratzeta eta naturatik ikastea, “gure ondorengo belaunaldiak galtzen ari diren altxorriari eusteko modu bat da” idatzi zuen Bergerrek.

Bide beretik: Tapiáren helburua ere ez zen bere leihoe-tatik hain oparo ikusten zuen natura bere hartan erreproduzitzea, eguzkiaren argitan ikusitako naturaren argi ezkutu propioa bilatzea baizik. Argi aldakorraren sekretu betikoak iradokitzea. Sasiak eta masustondoak, arto-sailak eta kanaberadiak pintatzen zituen Tapiak, baina ez haietako adar, hosto eta abarren ehundura zoragarrietan gelditzeko. Tapiak ehuntzen dituen adar-sareak oso ederrak dira, bai, miresgarriak dira Tapiak txirikordatzen dituen dantza kromatikoak, inpresioak, sugestiozko labirintoak, baina ikuslearen lehen kolpea haietan gelditu arren, laster ehundura horien atzean, harago eta sakonago dauden argi sekretuen bila hasten da ikuslearen begirada. Baina, laguntzarik gabe, begirada ez baita horretarako gai: imajinazioaren laguntza behar du.

Hiletatik irten ginenean, eguzkia sartuta zegoen, baina Oria inguruko paisaia ez zegoen ez isilik, ez argirik gabe.

# Usurbilgo Udalak 168.000 euro banatuko ditu diru-laguntzetan

A di, herrian egitasmoren bat gauzatzeko asmotan zaretenok. Usurbilgo Udalaren diru-laguntza deialdian parte hartzeko epea zabalik dago jada, martxoaren 13ra arte. Udalak guztira 168.000 euro bideratuko ditu aurten, kultura, kirola, gizartegintza, nekazaritza eta abeltzaintza, ingurumen eta igogailuen instalakuntza proiektuak sustatzera.

Usurbildar norbanako, eragile nahiz erakundeek 2017. urte honetan zehar kultura, kirola nahiz gizartegintza eremuetan gauzatu asmo dituzten egitasmoak lagunduko ditu Udalak. Nekazaritza, abeltzaintza eta ingurumen eremuetako laguntzak aldiz, 2016an zehar gauzatu ziren ekimenentzako eskatu ahalko dira.

## Dirulaguntzak eskatzeko epea ireki da

Guztira honenbestez, 168.000 euro bideratuko ditu Udalak, usurbildar norbanako nahiz eragileen egitasmoak laguntzera. Honakoa izango da diru-laguntza deialdiak jorratuko duen bidea. "Usurbilgo Udalak 2017 urteari dagozkion diru laguntzen deialdi orokorra ireki du dagoeneko. Diru-laguntza hauek norgehiagoka erregimenean erabakiko dira eta 168.000 euroko diru partida erabiliko du Udalak zeregin



Aurten, diru kopuru hori bideratuko du kultura, kirola, gizartegintza, nekazaritza eta abeltzaintza, ingurumen eta igogailuen instalakuntza proiektuak sustatzera.

### USURBILGO UDALA

**"Usurbildar norbanako, eragile nahiz erakundeek 2017. urte honetan zehar kultura, kirola nahiz gizartegintza eremuetan gauzatu asmo dituzten egitasmoak lagunduko ditu Udalak"**

horretan. Dagokion arloko teknikariak diru-laguntza eskariak aztertu ondoren, txostena egin eta dagokion Batzordera eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman dezan", iragarri dute Udaletik.

### Udal diru-laguntza kopuruak eremuka

- Kultura: 80.000 euro.
- Kirola: 46.000 euro.
- Gizartegintza: 12.000 euro.
- Nekazaritza eta abeltzaintza: 10.000 euro.

- Ingurumena: 10.000 euro.
- Igogailuen instalakuntza: 10.000 euro.
- Guztira: 168.000 euro.
- Eskabideak non aurkeztu: udal erregistroan.
- Noiz aurkeztu: martxoaren 13a baino lehen (igogailuen kasuan, dirulaguntza eskatzeko epea hiru hilabetekoa izango da).
- Zer aurkeztu: "Dirulaguntza eskaera formalizatua, eskatzaileraren NAN fotokopia, Elkar-tearen Estatutuak (hala bada-gokio), Gizarte Segurantzako zein Ogasuneko betebeharrak egunean egotearen egiaztagiria, beste dirulaguntza eskabideen aitortpena, elkar-teak ez duela inor baztertzen adierazten duen agiria, emakume eta gizonen berdintasunari lotutako ziurtagiria eta ekintzei buruzko fitxak".

- Informazio gehiago: Otsailaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 943 371 951 usurbil.eus

## Igogailuen instalakuntzak ezartzeko 10.000 euroko diru-partida gorde du Udalak

Bada ordea berrikuntza bat aurten. Etxean igogailua jartzeko diru-laguntza ere eskatu ahalko baita. Horretarako, Udalak guztira 10.000 euroko diru-partida erreserbatu du. Zenbait baldintza bete beharko dira ordea, laguntza honen onuraduna izateko. "Instalazioak 2016an jaso beharko luke Usurbilgo Udalak emandako obra amaiera ziurtagiria, eta balizko onuradunek sei hilabeteko antzinasunarekin erroldatuta egon eta bertan bizi beharko dute. Horrez gain, udalerrri berean igogailua duen bigarren etxebizitzaren jabe ez izatea beharrezkoa izango da. Diru laguntza honetarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko dira eskariak. Eskaera bakoitzeko diru laguntza, gehienez, 1.000 eurokoa izango da", ohartarazi du Udalak.



Igogailuen kasuan, eskaera bakoitzeko diru laguntza gehienez 1.000 eurokoa izango da.

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

  
ARRANDEGIA  
**PELLO**

PUNTA PAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

# Pagazperen esanetan, ezarritako datak errespetatzean dago gakoa

Otsailaren 5ean, Euskal Herriko Kluben Arteko 3. Nazio Txapelketako finalean gertatutakoak zeresan handia eman du he-dabideetan. Esan diren kontu askoren aurrean, Usurbilgo Pagazpe Elkarteko Zuzendaritzak komunikatu berri bat plazaratu du bere sare sozialetan. “Gertatutakoa beste leku batzuetako diruarekin lotzea oso itsusia da”, hala dio Pagazpek. Eta errespetua eskatzen du pilotarientzat, elkartearientzat eta partideta joaten diren zaletuentzat.

Komunikatua osorik irakurri dezakezue noaua.eus orrian edota Pagazperen sare sozialetan. Diru kontuekin jokalarien izen ona zikindu nahi dela dirudi. Eta Pagazperen esanetan, Xabier Sancho eta Aitor Gorrotxategi Amezketan beharrean, “bere hitza betetzen ari ziren ziren Madrilen. Txapelketa Nazionalarekin beti egin dugun bezala. Aurkezpena egin zen egunean kanporaketa ezberdinetako egunak Nazionalerako gorde genituen. Sekula ez dugu arazorik ipini antolakuntzak ezarritako egunekin. Sekula onartu ezin duguna da inongo motiborik gabe antolakuntzak nahi duen egunetara aldaketak egitea da. Hiru alditan gertatu zaigu berdina. Gure pilotariek



Polemikaren erdian, Pagazpek errespetua eskatu du bere jokalarientzat.

## ANTOLATZAILEEI

**“Zuek zarete sariak eta txapelketaren datak erabakitzen dituzuenak. Inork ez zaituzte behartzen, baina emandako hitzarekin kunplitu beharra dago”**

beste konpromiso batzuk hartzeko eskubidea dute eta beste antolatzaileek ere. Zuek eskatzen duzuen errespetua merezi dute”.

## “Emandako hitzarekin kunplitu beharra dago”

Pagazpeko zuzendaritzak aditzera eman duenez, Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketako antolatzaileek egin dituzten data aldaketekin “jokalarien planak ez ezik, beste askorenak ere aldatzen dituzue. Hala eta guztiz ere, beti joan izan gara zuek

esandako egunetan, baina otsailaren 5ean nahikoa dela esatea erabaki genuen”. Eta ezarritako datak errespetatzea eskatzen du Pagazpek: “zuek zarete sariak, txapelketaren datak erabakitzen dituzuenak. Inork ez zaituzte behartzen, baina emandako hitzarekin kunplitu beharra dago”.

Spainiaiko Txapelketa, torneo pribatuak, dirua... Gai asko nahastu dira polemika honetan. “Egunkari desberdinetan erruduntzat jartzen dituzuen arrazoiak beti izan dira pilotan”, diote Pagazpekoek beren komunikatuan. “Pilota ez da atzo asmatua eta pilotariak beti murgildu izan dira ongi zurrumbilo honetan. Baina sekula ezagutu ez duguna horrelako antolakuntza bat. Bertako baten jarrera autoritario eta errespetu faltek ez dute lagundu egia esan. Igandean (otsailak 5) kadeteekin joateko egin zitzaigun luzapena adibide garbi bat da”.



Andatza KE-ko kideek Bidasoako Kontrabandistak ibilbideko bigarren etapa osatu zuten aurreko igandean.

## Pilota partidak

Otsailak 16 osteguna

Udaberri saria, gomazko palan 1. mailakoen partida 20:30ean Aginagan.

Otsailak 17 ostirala

Udaberri saria, gomazko palako 2. mailakoen final laurdena. 21:45ean Aginagan.

## Futbol partidak

### Haraneko zelaian

Otsailak 18 larunbata

■ 09:30 Infantil neskak: Usurbil F.T. A-Intxaurdi C

■ 10:30 Infantil mutilak: Usurbil F.T.-Ordizia

■ 12:00 Kadete mutilak: Usurbil F.T.-Antigua Luberrri B

■ 16:00 Erregional mutilak: Usurbil F.T.-Ordizia K.E.

Otsailak 19 igandea

■ 09:30 Futbol Eskola, 2007-2008: Usurbil F.T.-Orereta Kafe.

## Eskubalo partidak

### Oiardo Kirolegian

Otsailak 18 larunbata

■ 09:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 5A-Langile C

■ 09:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 6A-Elizatzko

■ 10:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 6C-Urnieta 6B

■ 11:30 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi D Usurbil-Hernani

■ 12:45 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Urnieta

■ 14:15 Kadete mutilak, lagun artekoa: Usurbil K.E.-Tolosa C.F.

■ 15:45 Jubenil neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Zuazo

■ 17:30 Jubenil mutilak, Federazio Torneo: Usurbil K.E.-Karibe Zaharra Legazpi

■ 19:30 Senior mutilak, 1. nazionala: Ucin Aluminio Usurbil-Beti Onak

Otsailak 19 igandea

■ 09:15 Alebin mutilak, Gipuzkoako Errendimenduko Txapelketa: prestakuntza saioa.

■ 10:15 Alebin neskak, Gipuzkoako Errendimenduko Txapelketa: prestakuntza saioa.

■ 11:30 Kadete neskek, Foru Aldundiko Txapelketa: Usurbil K.E.-Aiala A ZKE.

**Oharra:** Alebin mutilen Buruntzaldeko neurketa (Udarregi 5C-Urnieta 5B) eta infantil nesken Gipuzkoako Txapelketako neurketa (Udarregi B Usurbil-Ordizia) atzeratu egin dituzte.

**ETXEBIZITZA****Salgai**

90 m<sup>2</sup> pisua Nagusi kalean. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. Eguzkitsua, berritua. Informazio gehiago: 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berriua. Oso argitsua, bista onak. 395.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, egongela, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Extebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m<sup>2</sup> trastelekua. 626 347 914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, sarrera zabal, komun bat. Eguzkitsua, epela. Gela guztiak kanpoaldera, leihoarekin. Fatxada berriua, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 eta 56) eta garajea 50m<sup>2</sup> eta terraza 9m<sup>2</sup>. Igogailua, fatxada berriua. Oso argitsua, bista onak. 679002101

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642.

78m<sup>2</sup> pisua Atxegalden. 4 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoi luzea, trasteroa. Igogailua. Eguzkitsua. 215.000 euro. 656742207

BOE-ko 79m<sup>2</sup> etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Exte txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m<sup>2</sup>. Pisu baxua. Berriua. Sukalde irekia, esekilekua,

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Inaki (665736896)

Exte bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

**Alokairuan**

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Pisu bat Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta sukaldea. Animaliak ez dira onartzen. 667 680 236.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelegin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariek eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

**MOTORRA****Salmenta, garajeak**

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxeo karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 ziilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405.

Galtzarainako garaje marra salgai. 20.000 euro. 687348223

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Suzuki Vitarra salgai. Diesela. 1998. urtekoa. Korrea aldatu berria. 630 490 844.

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsua. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo

garaje-trastero moduan. Errekaxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadrokoak Santuenea 17. 615149900.

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Arrandegirako langilea behar dut. Euskara jakitea ezinbestekoa. 628 063 871.

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ile orrazteko eskaintzen naiz. Apropoza pertsona helduak, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Exteko lanak egiten edo garbiketari, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

Exteko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatrian laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako

edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, orduko lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak, tabernan arraskan aritzeko... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketari, jatetxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanetara eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketak. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, irailetik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratza lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbi-

**Heriotzak**

Margarita Camino Ibargoien

93 urterekin hil zen otsailaren 7an Usurbilen.



**OHARRA:** 2017ko otsailaren 24an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: otsailak 20 astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailez, helbide honetara igorri: [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

keta lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsu bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etkez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketan. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean

hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekue-tan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jabetxe-ren batean harraskako garbiketarak egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferen-

tziekin. 631 321 981.

**BESTELAKOAK**

Betaurreko batzuk agertu dira, graduatuak eta funda beltz batean. Atxegaldeko erdiko kalean. Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Artzabal inguruan ume txano grisa galdu dugu; ponpoiduna eta belarriak tapatzekoak dituen. Norbaitek aurkituko balu, eskertuko genuke udaltzaingoan entregatzea.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilita) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazokoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Katakumeak oparitzen ditut. Baserrian ohituak. Tel. 610 375 595.

Txokoalden, San Esteban gora aldera igotzen, Mugi txartel bat aurkitu da. Izena: Jose Maria Otaegui Mugica. Udaltzainetan dago, eta pasa handik bila.

Puntuakoa txaketa beige bat galdu zen uztaillaren amaieran, anbulategi erdigune inguruan. NOAUA!ra ekarri mesedez.

Abuztuan Usurbilgo Udaltzain-gora haurrentzako botika eta higieneko produktuz betetako laranja koloreko nezeser edo botikin bat entregatu dute. Galdu duenak Udaltzaingoan galde dezala.

Pago egurra salgai (txiniso-ko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldera Oiarde Kiroldegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostikat elkarteetan. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro polar bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztaileko bigarren hamabostaldian, uztaillaren 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerdik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonika.....	1004
Noaui Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskatel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

- Osteguna 16** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte
- Ostirala 17** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte
- Larunbata 18** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte
- Igandea 19** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte
- Astelehena 20** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte
- Asteartea 21** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte
- Asteazkena 22** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

## Otsailak 16 - otsailak 26

- Osteguna 23** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte
- Ostirala 24** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte
- Larunbata 25** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte
- Igandea 26** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE Elkano 9 Behea, Hernani 943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda otsaila

## 17 ostirala

- **Proiektu alternatiboak sortzeko gazteen bilera.** 17:00etan Potxoenean.

## 18 larunbata

- **Mus eta toka txapelketak Aginagan** 15:30etatik aurrera Eliza Zaharrean.
- **Euskal Inauteriak kalejiran, Zubietatik Lasartera.** Egun osoko festa.
- **Poteo militantea, Matrakak taldeak antolatuta.** 19:30ean Dema plazan.

## 19 igandea

- **GuraSOSen manifestazioa Donostian,** 12:00etan Donostiako Artzai Onaren Kate-draletik Alderdi Ederrera.

## Mus eta toka txapelketak Aginagan

**H**erritzartuk antolatuta larunbat honetan, erabakitze eskubi-dearen alde, eta maitzaren 7ko galdeketa babesteko. Aginagako Eliza Zaharrean jokatu dira txapelketak. Lehenbizi mus saioa izango da. Izen ematea 15:30-16:00 artean bideratu beharko da. Bikoteko 20 euro ordaindu beharko dira. Ondoren jokatu da toka txapelketa. 2 euroren truke parte hartu ahalko da. Honatx jokoan jarriko dituzten sariak:

**Mus txapelketan:** Lehen saria: Txapela, Bi arkume eta bi txangurru. Bigarren sa-



**Larunbat honetan, Aginagako Eliza Zaharrean. Izen-ematea 15:30ean hasiko da.**

ria: Bi txerrikume eta bi txangurru. Hirugarren saria: Lau txuleta eta bi txangurru. Laugarren saria: Lau txuleta eta bi txangurru.

**Toka txapelketan:** Txanpain botila.

## Larunbat honetan, Lasarte-Oria eta Zubietaren arteko senidetze ospakizuna

- 11:00-13:00 Elkarreetan zehar puska bila (Lasarte-Orian).
- 16:00 Ekitaldia Zubietako plazan.
- 16:15 Zubietatik Okendora kalejira.
- 16:30 Lasarteraren harrera: lasarte oriatarren zubietarrei gondabipen dantza eta zubietarren erantzuna.
- 17:00 Zubietarren eta lasarte-oriatarren senidetze dantzaldia. Eta segidan, kalejira herriitik.
- 18:30 Erromeria eta suaren ekitaldi berriua. Amaitzeko, txokolatada goxoa plazan.



**Arratsaldeko 16:00etan ekitaldia egingo dute Zubietan. Handik Lasarte-Oriara joko dute.**

- 21:00 Irakurle txokoaren eskutik, bertso afari literarioa Xirimiri Elkartearen: Eider Rodriguez, Uxue Alberdi, Maialen Lujanbio eta Ane Labaka.

### Datozenak

#### Landaberriren urtemugako antzezlanerako sarrerak

Hastapenetan lasarterekin batera, Usurbilgo eta usurbildarrena ere izan zen Landaberi Ikastolak 50 urte bete zituen iaz. Udazken partean hainbat ospakizun bideratu zituzten. Tartean, antzezlan bat ere sortu eta plazaratu zuten: "Landaberi Ikastolak 50 urte" izenekoa. Otsailaren 24ean, Sutegin ikusi ahalko dugu, gaueko 22:30etan hasita. Emanaldirako sarrerak doakoak izango dira, baina aretoak eserleku kopuru mugatua duenez, gonbidapenak banatuko dira. Gonbidapenok, aldeztatik Udarregi Ikastolan eskuratu ahalko dira, eta emanaldi egunean bertan, saioa baino ordu erdi lehenago Sutegin.

#### Kutxa Kultur Festibala, Zubietako hipodromoan

Azken bost urteetan Igeldoko jolas partean antolatu izan duten jaialdia, Zubietako hipodromoan ospatuko da irailaren 15ean eta 16an. 8.000 lagunentzako lekua izango duen jaialdiak lau eskenatoki izango ditu, edota akanpadarako gune propioa. Dagoeneko The Jesus and Mary Chain, The Hives edota Love of Lesbian taldeak Zubietara datozela iragarri dute antolatzaileek.

**ETXETRESNEN KONPONKETAK**  
azkar, prezio onean MARKA GUZTIAK  
20 URTEKO ESPERIENTZIA  
645417665  
XABIER  
Usurbil

Josue  
Igeltseritza  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**BORDATXO**  
taberna  
Pintxo Bereziak  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**



# Tapa eta aurkibideak prest



Agur esan diogu 2016 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2016ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

AMERIKETAKO ESTATU BATUAK  
**MENDEBALDEKO KOSTA**  
 Irteera Lasarte-Oriatik, NOAUA BIDAIAK-ek lagunduta

**MAIATZAK 14-28**  
 ezagutu...  
 Los Angeles  
 Grand Canyon  
 Las Vegas  
 Yosemite  
 San Francisco  
 eta askoz gehiago!

**NOAUA BIDAIAK**  
 Huelrome Etorbidea, 10 - 20160 Lasarte-Oria, Gipuzkoa  
 T. 943 373 613 | info@noaubidaiak.com  
 www.noaubidaiak.com

# MAIATZAREN 7KO HERRI GALDEKETA BABESTEKO atxikimendu kanpaina

- 650 SINADURA BAINO GEHIAGO
- 400 HERRITARREN ARGAZKI ERRALDOIA.
- 30 ERAGILE EZBERDINEN ATXIKIMENDUA:

Udarregi ikastola, Hitz Aho guraso elkarte, Andatza kirol elkarte, Etumeta AEK euskaltegia, San Praixku guraso elkarte, Peña Pagola elkarte, Aitzaga elkarte, Erroizpe elkarte, Ibai Ondo elkarte, Santueneako Gure Elkarte, Andazpe elkarte, Mahaspildegri elkarte, Baxurde Txiki taldea, Dantza taldea, Euzko Alderdi Jeltzalea, EHbildu, Sortu, Ernai, Gazte Asanblada, Etxerat, Kantu taldea, Herriko musika taldeak (Zaparra, Izeberg, Rukula, Desegin, Hotzikara, Iñorkiñak, Erokomeri eta Odolaren mintzoa), Usurbil K.E. Eskubaloi taldea, Usurbilgo Futbol Taldea, San Estebango jai batzordea, Atxegaldeko jai batzordea, Agiñako jai batzordea, Zubietako jai batzordea, Errausketaren aurkako taldea eta Hurbilago.



## ekimen agenda, parte hartu!

- GALDERA ADOSTEKO PROZESUA  
OTSAILAK 5tik MARTXOAK 19ra
- MUS TXAPELKETA AGINAGAN  
OTSAILAK 18, 16:00etan ELIZA ZAHARREAN

